



INTERNETEKO SEGURTASUNARI BURUZKO ESKULIBURUA

BIRUSa	
Zer dira?	Ondorioak
<p>Birus informatikoak programa, mezu elektronikoa, web gune edo fitxategiren baten barruan ezkatuta zabaltzen diren programak dira, eta infektatzen duten ekipoaren funtzionamenduari eragiten diote.</p>	<p>Birusek PCaren funtzionamendua aldatzen dute. Besteak beste, disko gogorreko informazioa ezaba dezakete, ordenagailua minutu gutxi batzuk igarotzen diren bakoitzean berrabiaraz dezake edota komunikazio-atakak ireki ditzake –hori gertatuz gero, arrotzen batek ordenagailua urrunetik kontrolatu ahalko du–.</p>
Nola saihestu?	
<ul style="list-style-type: none"> • Instala ezazu birusen aurkako software bat, eta egunera ezazu, egunero ateratzen baitira <i>birus</i> berriak <p><i>Euskaltelek, Postako Antibirusa zerbitzuaren bidez, posta elektronikoaren bitartez sartu edo atera daitezkeen birusetatik babesten du zure ordenagailua. Hartara, ez duzu birusen aurkako programarik erosi eta instalatu beharko, eta ez duzu eguneratzeaz kezkatu beharko. Euskaltelek egingo du zure ordez. Zerbitzua eskatzeko, 1717 telefono-zenbakira deitu edo gertuen duzun Euskaltelen saltokira joan besterik ez duzu</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez ezazu exekutatu mezu elektronikoa batean datorren fitxategi erantsirik ez badakizu ziur nork bidali dizun edota zein den haren edukia. • Izan ezazu ardura berezia zalantzarik tokietatik softwarea kopiatzen duzunean. • Txatean (IRC) edota berri-taldeetan (news) zaudela, ez onartu eskatu ez duzun fitxategirik. • Egin zure datuen segurtasun-kopiak aldian behin. 	

BIDEGABE SARTZEA

Zer dira?	Ondorioak
<p>Nahi ez dugun norbait urrutitik gure ordenagailuan sartzen denean, bidegabe sartu dela diogu.</p>	<p>Sarkinzk informazio konfidentziala eskura dezake, edota nor den ezkuta dezake, eta gure ordenagailuan ekintzak gauzatu. Kasurako, teklatuaren pultsazioak grabatzen dituzten programak sar ditzake gure ordenagailuan, hala, datu konfidentzialak pasahitz gisa erabili ahal izateko.</p>
Nola saihestu?	
<ul style="list-style-type: none"> • Bidali mezu elektronikoa egiaztapenarekin. Spammerrek zure Pctik mezu elektronikoen bidalketa masiboak egitea saihestuko du horrek, baita Interneten spammer gisa identifikatzea eta, beraz, zure IPa zerrenda beltzetan sartzea ere. Operadore batzuk kontsultatu egiten dituzte zerrenda beltz horiek, eta helbide horien bidalketak mugatzen. Beraz, ezingo dizkiezu bidali mezu elektronikoak ezagunei, operadore horien bidez badute Internet. Ondoren, erreklamazioa kudeatu beharko duzu, zure IPa zerrenda beltzetik kentzeko. Egiaztatutako mezu elektronikoa nola eratu ikus dezakezu helbide honetan: http://www.euskaltel.com/web/home_atclipartic.jsp?elegido=1&linea=Internet • Instala ezazu firewall edo suebaki bat. Norberaren ordenagailuan norberak nahi dituen erabiltzaileak bakarrik sartzeko gehien erabiltzen diren tresnak dira suebakiak. • Interneten konektatzeko beharrezkoak ez diren sareko protokoloak ezabatzen ditu Pctik; hots, TCP/IP izan ezik, protokolo guztiak. Horretarako, Inicio -> Panel de Control -> Red aukeran, ezabatu beharreko protokoloa hautatu eta Quitar sakatu behar da • Ez partekatu fitxategirik edo inprimagailurik TCP/IP protokoloaren bidez. Horretarako, Inicio -> Panel de Control -> Red aukeran zaudela, hautatu TCP/IP protokoloa eta sakatu Propiedades. Gero, hautatu Enlaces fitxa eta desmarkatu Compartir Impresoras y Archivos para Redes Microsoft • Desaktibatu NetBIOS, TCP/IP aukeraren gainean; horri esker, sarkinak ezingo ditu ikusi PCan partekatzen ari zaren baliabideak. Desaktibatzeko, berriro hautatu behar duzu TCP/IP protokoloa, Propiedades sakatu, eta NetBIOS fitxa hautatu; hor, NetBIOS aukera desaktibatu behar da. Desaktibatzeko aukerarik ematen ez badu, jada desaktibatuta dagoela esan nahi du • Programa batek Internetera konektatzeko eskatzen dizun bakoitzean, ez badakizu zer egin nahi duen, hobe da baimenik ez ematea. Erabiltzen ari zaren programako zerbaite ez dabilela ikusten baduzu, orduan eman dezakezu Interneten sartzeko agindua. • Ez eman zure erabiltzaile-izena eta Interneteko zerbitzuetarako pasahitzak (sarbidea, posta elektronikoa, FTP, etab.). IP finkoa ere ez zabaldu, halakorik baldin baduzu • Tarifa finkoko konexioak erabiltzen badituzu (ADSL, kable bidezkoa edo RTB), itzali PCa konexioa erabiltzen ez duzunean. Seguruagoa da, eta energia aurreztuko duzu. 	

SPAM-AK	
Zer dira?	Ondorioak
Eskatu gabeko mezu elektronikoak dira, eta, normalean, zerbait saltzeko izaten dira.	Erabiltzaileak denbora galtzen du horiekin; izan ere, mota horretako mezuak identifikatu eta ezabatu egin behar ditu, postontzian lekurik bete ez dezaten.
Nola saihestu?	
<ul style="list-style-type: none"> • Web orri edo berri-talderen batean oharrak argitaratzen badituzu, erabili posta elektronikoko ordeko kontu bat. • Ezezagunei telefono-zenbakia eman ez diezun bezalaxe, ez eman zure helbide elektronikoa ezezagunei. Web orri batean erregistratzeko eskatzen dizutenean, irakurri adi-adi baldintzak eta egiaztatu informazio horrekin zer egin behar duten. • Bidaltzaile jakin batengandik nahi ez dituzun mezu elektroniko asko jasotzen badituzu, blokea ezazu posta-programako iragazkien bidez. Hartara, mezu horiek atzera bota edo zuzenean zakarrontzira bidaliko dira. • Eten mezu-kateak; sarritan kausa onak dituzte, baina benetako asmoa posta elektronikoko helbideak eskuratzea da. • Ez erantzun sekula spam-eri. Zure kontua aktibo dagoen seinale garbia da. Halaber, ez bisitatu gisa horretako mezuetan agertzen diren orriak eta ez egin klik mezu horietako irudietan. • Spam-ik jaso nahi ez baduzu, news-etara mezu bat bidaltzen duzunean, idatzi identifikatzaile bat programa informatikoen (nombre@QUITAESTOdominio.com , nombre@dominioESTONOVALE.com) automatikoki jasotzea galarazteko, bai mezuaren goiburuko posta-helbidean bai eta sinaduran. Jarri identifikatzailea 'a' bilduaren eskuinean, ez izenean. • Jakinarazi Internet hornitzaileari spam-ak nork edo zer enpresak bidaltzen dituen. 	

DIALERRAK

Zer dira?

Interneten nabigatzen ari zarela asmo txarrez konexioak berriz bideratzeko erabiltzen dira dialerrak. Dialerren helburua da une horretan erabiltzen ari den telefono-konexioa moztu eta beste konexio bat ezartzea. Horretarako, askoz garestiagoa den beste telefono-zenbaki bat markatzen dute.

Ondorioak

Sekulako telefono-faktura jaso dezakezu.

Dialerrek banda estuko sarbideetan bakarrik eragin ditzakete arazoak, banda zabaleko sarbideetan ez baita telefono-zenbakirik markatu behar.

Nola saihestu?

- Tarifa bereziak ezartzen dituzten zenbakietatik deskonektatzeko eska diezagukezu **1717** zenbakira deituta. Hartara, ez duzu arazorik izango.
- Instalatu dialerren aurkako programa bat. Programa horiek zenbaki onartuen zerrenda bat (zerrenda zuria) konfiguratzeko dute. Ondorioz, konexioa zenbaki horietako batzuekin bakarrik ezartzen uzten du programak, eta gainerakoak atzera botatzen ditu. Dialerren aurkako doako programa helbide honetatik deskarga dezakezu: <http://www.hispasec.com/software/checkdialer/index.html>
- Egiaztatu konexioetarako erabili ohi duzun Sareetarako Telefono Sarbidea ez dela aldatu, exekutatzeko den bakoitzean markatzen den zenbakia Interneteko zerbitzuen hornitzailearena izan dadin, eta ez tarifa bereziko zenbakia.
- Egiaztatu ez dela sortu Sareetarako Telefono Sarbide berririk; izan ere, ordenagailuak, lehenespenez, sarbide hori erabiliko du beti Internetera konektatzeko.
- Kontuz zenbait orriekin, batik bat, helduentzako edukia duten orriekin. Izan ere, gehiago ordaindu beharreko telefono-zenbakia duen Sareetarako Telefono Sarbide berri bat instalatzeko eskatzen dute, eta zu konturatu gabe ere sortzen dute.
- Batez ere, zuhurtzia handiz jokatu. Dialerrak modu engainagarrian agertzen dira. Askotan, programa horiek kargatzen dituzten web orriak doako edukia duten orri gisa iragartzen dira.
- Publizitateak jokaldi makurrak egin diezazkizuke. Eduki jakin batzuk (batik bat, jolasak eta helduentzako edukiak) iragartzen dituzten banner-etako bat sakatze hutsa nahikoa da dialerra kargatzen duen programa exekutatzeko.

BUG-AK	
Zer dira?	Ondorioak
Bug-ak softwarearen akatsak dira.	Ordenagailua behar bezala ez ibiltzea eragin dezakete (fixategi arraroak agertzen dira, poliki ibiltzen da, ekipoa arrazoirik gabe berrabiarazten da, etab.), edo arrotzen bat ordenagailuan baimenik gabe sartzea.
Nola saihestu?	
<ul style="list-style-type: none">• Eguneratu aldian-aldian ordenagailuaren softwarea azkeneko bertsioetara (sistema eragilea, nabigatzailea edo beste aplikazio batzuk).• Microsoftek zenbait lanabes sortu ditu Windows sistema eragileetan bug-ek eragiten dituzten arazoak konpontzeko. Horietako bat Windows Update da. Windows Update web orrian (http://windowsupdate.microsoft.com) , Microsoftek automatikoki eskaintzen dizkizu zure sistema eragilean, programetan eta zure ekipoen hardwarean erabil ditzakezun eguneratze berrienak.• Egin segurtasun-kopiak edo backup-ak sistematikoki informaziorik gal ez dezazun.	